



10-11 ■ Sorosleak, hondartzetako zaindari

Jendea udan hondartzan eta igerilekuan seguru ibil dadin, ezinbestekoa da sorosleen begirada.



18 ■ Fidel Castro eta Hugo Chavez, «anaiak»

Kubako agintariak, erialdi larrian, «adiskidetasun minaren poza» ospatu du Venezuelako presidentearen bisitarekin.

euskal herria 2020 (I) > ekonomia eta enplegua

Txikiaren indarra

Enpresa txiki-txikiek osatzen dute aktibitate ekonomiko gehiena, sendotasuna emanez

E. BIDEGAIN

Baiona
Ipar Euskal Herriak, oro har, «osaturik ekonomiko onena» du. Alabaina, azken hamar urteetan 13.500 enplegu sortu dira, eta 2001etik 2004ra bitartean enpresa kopurua %7,6 emendatu da. Haatik, oso argi nabari da gorakada hori turismoaren eraginez gertatu dela, oroz gaitetik. Lanpostu anitz sortu da pertsonentzako zerbitzuetan. Enplegu kopuruaren gorakada ez da gazteen mesedetan izan, ordea. Lan prekarioa biziki handia da, ANPE langabezia bulegoak eskaintzen dituen lanpostu gehienak prekarioak dira. Halaber, eraikuntza, ostalaritza eta osasungintza sektoreek zailtasunak dituzte langileak aurkitzeko.

Desorekak nabari dira eskualdeen artean ere. Barnealdeko herrietan soldata apalagoak dituzte, kualifikazio handiko lanak eta enpresa gehienak kostaldean direla. Uztaritze eta Hiriburuko kantonamenduetan eta Angelun beste tokietan baino soldata hobeak dituzten bizi dira, kualifikazio handiko langileak hara doazelako bizitzera.

Enpresa txikiak

Ipar Euskal Herrian 26.400 enpresa zeuden 2004an. Bi herenak kostaldean dira. Enpresa gehienak (%56,7) langilerik gabeak dira, hots, beren gain ari diren nagusiak. Hamar langiletik gorako enpresak %9 baizik ez dira. Eta bakar batzuek baizik ez dituzte 100 langile baino gehiago. Hala ere, azken lantegi mota horretan dago langile kopuru handiena, orotara.

Artisauen sare zabalak egiten du, hala ere, Ipar Euskal Herriaren berezitasuna. Ofizialek, saltzaileek, erizainek eta langile liberelek osatzen dute sare hori. Elkarrekin sektoreak ere lanpostu anitz sortzen ditu. Antolaketa horrek independentzia handia ematen dio sektore ekonomikoari, enpresen %86ren zuzendaritza Euskal Herrian bertan dagoelako.

Ofizialek erretirarako adinera hurbiltzen ari dira, ordea. Enpresa txiki horietako nagusiak zahartzen ari dira. Artisautza enpre-

sa txikiaren herenak ez du segida hartuko dion inor.

Arrantza

Txikiak dira arrantzontziak ere. 196 ontzi ari dira, gaur egun, arrantzan. Erdiak 12 metrotik beherakoak dira, eta kostatik hurbil ibiltzen dira. Bertzeak 25 metrotik beherakoak dira, gehienak bolintxeroak edo sarea erabiltzen dutenak. Donibane Lohizuneko portura 6.636 tona arrain ekarri zituzten iaz, hots, 16,6 milioi euroko balioa.

Eta aurten zenbat tona? Zenbat euro? Urteko urtera zailtasunak dituzte etorkizuna asmatzeko. Sektoreak oztopo anitzi buru egin behar izan dio, arrantza anitzek lana utzi behar izan dute, eta krisiak ez dira bururatuko. Aurten antoxa ezin dute arrantzatu, itsasoan gero eta arrain gutxiago dago, gastuak gero eta handiago. Estrategia baten zehazteko eta antizipatzeko zailtasunak daudela diote txostena landu dutenek.

Industria

Nahiz eta azken urteetan 50 lantegitxi eta 1.200 lanpostu desagertu, industria nahiko egoera onean dago. Urtean ehun bat enpresa sortzen dira, bereziki elikagaien lotu industrian. Langileen %17,9 industria sektorean ari zen 2004ean, hots 11.867 langile eta 942 lantegi. Haatik, 37 enpresak baizik ez dituzte 50 langile baino gehiago. Enpresak hain txikiak izateak arazak sortzen ditu sarean antolatzeko edo giza baliabideak kudeatzeko.

Aeronautika da industria sektore aktibitate nagusia, enpleguen %35ekin. Baionako mugan, Tarnosen (Frantzia), Turbomeca enpresa dago. Enpresa hori kontuan hartuz, bizi eremu ekonomikoan aeronautikak askoz pisu handiagoa du. Horrek kanpoarekiko dependentzia egoera handian ezartzen du Ipar Euskal Herriko sektore hori, eta garatzeko aukerak mugatuak ditu. Bigarren aktibitate nagusia ehungintza lotua da.

Azken urteetan anitz garatu da lerra-kirolen sektorea, surferako gunea izanik, marka handiak erakarri dituelako. Euskal Herrian ez da produzitzen, haatik. Planoak eta marketina lantzen da bertan. Produzioa kanpoan egiten da. Puntako teknologia eta informatika ere anitz garatu da.

Merkataritza

Merkataritza da Ipar Euskal Herriko hirugarren aktibitatea, 14.300


■ Ipar EUSKAL HERRIKO ekonomia

Soldatadunen kopuruaren bilakaera 1995-2004.*

Sektorea	1995	2004	Bilakaera
Laborantza	121	73	% -39,7
Industria	11449	11867	% 3,7
Eraikuntza	4661	6135	% 31,6
Merkataritza	11709	14310	% 22,2
Hotelak eta jatetxeak	3740	5325	% 42,4
Zerbitzuak	21588	28595	% 32,5
OROTARA	53268	66305	% 24,5

*Autonomoak edo bere kontura ari diren langileak ez dira kontuan hartu

Enplegu motak (%)



Hamar enpresa handien zerrenda

enpresa	langile kop.	lekua
Baionako ospitalea	2.745	Baiona
SNCF	1.058	Baiona
Dassault aviation	970	Angelu
Baionako udala	919	Baiona
Miarritzeko udala	735	Miarritze
Quicksilver	734	Donibane Lohizune
ADMR Assistance	647	Hendaia
Carrefour	537	Angelu
Angeluko udala	498	Angelu
EDF	472	Angelu

TURRISA. GARAPEN KONTSEILUA

langilerekin. Hamar urtean %21,7 igo da kopuru hori. Merkataritzako enpresa gehienak txikiak dira. Beste eskualdeetan baino saltegi gehiago dago ehungintzan, etxeko tresnerian, hipermerkatuetan, baratzetako zaintzan eta auto salmentetan.

Zerbitzuak

Ipar Euskal Herriko enpleguaren %57 zerbitzuetan banatua da. Gorakada handiena enpresentzako zerbitzuetan nabaritu da. Alabaina, enpresa anitzek beren aktibitate anitz, administrazioko kontuak bereziki, kanpoko enpresa batzuen esku utzi dituzte. Aldi baterako lan kontratuen gorakadak ere badu eragina, enpresa anitzek aldi baterako langileak hartzen dituztelako, eraikuntzan eta industrian bereziki.

Turismoaren garapenak eta bigarren etxebizitzaren kopuruaren

gorakadak pertsonentzako zerbitzuen garapena eragin du. Langile kopurua %42,4 emendatu da ostalaritzan, azken hamar urteetan. Etxebizitzari lotu aktibitateak %54,8 enplegu gehiago sortu ditu, epe berean.

Turismoa

Enpleguaren %10 ordezkatzen du turismoak, batez beste egunean 33.000 turistarekin. 2004an 400 milioi euro sartu dira turismoarekin. Turista gehien-gehienak kostaldera doaz. Horrek arazo handiak sortzen ditu udan, errepidean bereziki. Halaber, bigarren etxebizitza kopurua etengabe goratzen ari da. Harrera kalitate oneko bada ere, hotelen kalitatea ez da hain ona. Arazoak daude langileak aurkitzeko eta udan lanera datozentzat lo egiteko tokia atzemateko.

Bihar: Laborantza eta mendia



Enpresak, berritze planetan herabe

Ipar Euskal Herriko enpresen ia erdiek ez daukate berritze planik. Berritze plana lotua izan daiteke ekoizpenari, ekoizteko prozedurari, lanaren antolaketari edo saltzeko metodoari. Hainbat egiturak berritze prozesuan laguntza ekartzea proposatzen dute. Enpresa anitz ez dira berritze planetan sartzen, berritze prozesuak ez dituztelako ezagutzen, metodologia eta informazioa eskas dituztelako edota ez dutelako nahiko baliabiderik horretarako.

Arazo bertsuak agertzen dira kalitatearen, segurtasunaren eta ingurumenaren aldeko neurriak hartzerakoan. Atal honen eronkak ez ezagutzeaz gainera, araudi zorrotzegien beldurra, aldaketan kostua eta etekin neurtzeko zailtasuna traba batzuk dira.

Lurraren prezioak ere arazo latzak sortzen ditu. Gaur egun gune ekonomiko gehienak beteak dira, eta aktibitate gune horietako enpresentzat ez dago hedatzeko aukerarik. Horrez gain, libre diren eremuetan, lehentasuna etxebizitzak eraikitzeari ematen zaio, eta ez dira ekonomia beharrik aurrezikusten. Oreka aurkitzeko premia dago.

Lanpostuen gorakada bereziki turismoaren garapenaren ondorioz gertatu da

Enpresa txikien jabeek arazo handiak dituzte beren lanaren segida nork hartu aurkitzeko